



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko martxoaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko martxoaren 7an, arratsko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÛAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOEHEA Inaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÛAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Eiorri, CHAMALBIDE Corinne, HEGUY Antton, JORAJURIA Ramuntxo.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio

Deialdiaren eguna : 2023ko martxoaren 3a

Afektatze eguna : 2023ko martxoaren 3a

4. ERABAKIA: HERRIKO XERRENDA ETXE MULTZOKO 2022ko KUDEAKETA KONTUAREN AZTERTZEA ETA BOZKATZEA

Auzapezak Herri Biltzarkideei, BAIGORRIKO hartzaile jaunak kontu ekitaldiaren bukaeran osatu kudeaketa kontua azaldu die.

Auzapezak ontzat eman du, eta egiaztatu du hartzekoak diren titulua eta emititu diren mandatuak bere kontuekin bat datozela.

Ondotik, kudeaketa kontua administrazio kontuarekin batera Herri Biltzarren bozkara eman du.

Herri Biltzarak,

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

Xerrenda etxe multzoko 2022ko kudeaketa kontua bozkatu du, bertan agertzen diren eragiketak eta kontu ekitaldiaren emaitzak aztertu eta gero.

Gorago eman egun, hilabete eta urtean,

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 11
Balizko boz kopurua : 11
ALDE : 11
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

ORTZAIZEN, 2023ko martxoaren 7an,
Auzapeza,
Jean-Marc OÛAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/03/14an.